

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Antonia Kortazar Agiriano

Elorrio, Bizkaia
(1918)

Aurkibidea



Biografia



Mendraka auzoko Mendrakabeiti txikia baserrian jaio zen. Ama Berriokoa eta aita Axpekoa; bederatzi neba-arreba ziren. Aldapera ezkondu zen eta bi seme izan zituen. Senarra gazterik hil zitzaion, eta bi semeak ere joanak ditu. Lekeition egon zen lanean ahizparen tabernan; Gerra-denbora han igaro zuen. Baserrian egin du lan geroztik, 33 urtera arte Mendrakan, eta Aldapen ezkondu ezkeru.

Zintak

ELO-037

- **Proiektua:** Elorrioko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Eguen, Inma - Eriz Gongeta, Miriam
- **Data:** 2010-11-09
- **Iraupena:** 53 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Transkribatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin

ELO-153

- **Proiektua:** Elorrioko toponimia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Eriz Gongeta, Miriam
- **Data:** 2005-01-01
- **Iraupena:** 19 min
- **Euskarria:** Audio digitala

Pasarteak

1. Gizona eta bi semeak gazterik hil

- **Erref:** ELO-037/002
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:02:57. **Bukatu:** 00:04:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia

Laburpena:

Mendranken jaio eta Aldapera ezkondu zen. 59 urte darama auzo honetan. Bi seme izan ditu, biak hilda daude. Gizona ere gazterik hil zitzaion, ezkondu eta hamar urtera.

2. Baserrian beharra astoaren moduan

- **Erref:** ELO-037/003
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:04:23. **Bukatu:** 00:05:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

Lekeition egon zen tabernan lanean gerra-denboran. Mendrakako baserrian "biharra astuan moduan" egindakoa da. Bere baserria non dagoen azaltzen du.

3. Eskolan dotrina eta galtzaginan bakarrik ikasi

- **Erref:** ELO-037/005
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:05:49. **Bukatu:** 00:07:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:

Eskolara joan joaten ziren, baina ez zuen ia irakurtzen ere ikasi. Maistra batengana joaten zen. Dotrina besterik ez zuten ikasten, eta arratsaldetan galtzaginan egiten zuten.

4. Anbotoko Señora, ondo-ondoka, sakaponak... umetako jolasak

- **Erref:** ELO-037/007
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:07:59. **Bukatu:** 00:09:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

<p>Txikitan hartzen zuten olgetarako astia. Anbotoko Señoraren jolasa, ondo-ondoka (gorde-gordeka), sakaponetan eta horrelakoetan ibiltzen ziren</p>

5. Eibarko eskopetak azaldu zirenean galdu ziren sorgin kontuak

- **Erref:** ELO-037/008
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:09:04. **Bukatu:** 00:09:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Armagintza
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:

Eibarren armak egiten hasi zirenean amaitu ei ziren sorgin kontuak eta horrelako lelokeriak. Oso ilun egoten zen Mendrakako bidea erromeriatik etxerakoan.

6. Lekeition lau urtez gerra denboran neskame

- **Erref:** ELO-037/010
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:10:51. **Bukatu:** 00:11:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

Lau urte egin zituen Lekeition lanean gerra denboran, 19 urterekin joanda. Bere sasoi onena han pasatu zuen, ez erromeria eta ez ezer.

7. Erromeriak eta neska-laguntzak

- **Erref:** ELO-037/012
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:12:28. **Bukatu:** 00:13:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

Elorrioko plazan makinatxo bat dantza egindakoa da. Mutilekin dantzan egiten zuten, "agarrauan, ondo edarto". Neska-laguntzak ere egiten ziren. Orain ohitura hori galduta ei dago.

8. Leketion, Francoren tropak sartzean, larri

- **Erref:** ELO-037/015
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:17:29. **Bukatu:** 00:19:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Gerra gogorra dela dio, ez erromeria eta ez ezer. Lekeition Francoren tropak sartzean izandako estutasunak kontatzen ditu. Bizkargi mendian soldadu asko hil eta zauritu zen, eta berak haiek ikustean tristezia sentitzen zuen.

9. Mendrakarrak gerra denboran preso

- **Erref:** ELO-037/017
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:20:45. **Bukatu:** 00:22:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Bere osaba eta beste auzotar batzuk gerra denboran preso hartu eta kartzelan eta hortik zehar luzaroan nola ibili ziren kontatzen du.

10. Laiaketan ibilitakoa

- **Erref:** ELO-037/018
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:22:05. **Bukatu:** 00:23:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Baserria » Baserriko lanak

Laburpena:

<p>Baserriko lanak denak gogorrak. Laiaketan ere ibilitakoa da hamabi urteaz, izotz galantarekin, kuadrillan.</p>

Transkripzioa

-Biher gogorrek egingo ziñuzen ba basarrixen?
-Basarrixen biher gogorra dao betik, ein in biher da basarrixen bihera. Oin ez askorik, baiña lehen? Buenooo!
-Zer daukazu goguen, holan biher astuna edo, akorduan holan biher eskasa?
-Laixaketan eta danian eindda nao ni, laixaketan. Zuk ez dakizu zer dan laixaketia. Laixaketan; hartu, zerak hartu ta lurra bueltau. Hamabi urteaz kuadrillan. Eztao. Ixotza galanta-ta [...] kuadrillan. Holantxe, aurrera.

11. Medikuak oinez eta bizikletan. Bizixoaren kontra bedarra

- **Erref:** ELO-037/020
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:23:49. **Bukatu:** 00:25:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak

Laburpena:

Medikuek ere nahikoa lan izaten ei zuten. Bizikletan ahal zuten lekuraino eta gero oinez, ez zegoelako biderik. Bizixoen kontrako belar-ura hartzen ei zuen, gustura. "Solitariaz" ari dela dirudi. Mendrakatik Aldapera etorrita gero bota ei zuen.

12. Urtebetetze-eguna noiz denik ere ez

- **Erref:** ELO-037/024
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:34:03. **Bukatu:** 00:35:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

<p>Ogia lurrera jausiz gero, mun egin eta hartzen zuen beti. Orain ere bai berak. Urtebetetze eguna noiz denik ere ez. "Urtiei kasoik be ez eta aurrera" dio.</p>

13. Doministikua

- **Erref:** ELO-037/025
- **Iraupena:** 0:00:21. **Hasi:** 00:35:14. **Bukatu:** 00:35:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Esaerak

Laburpena:

"Jesus, doministikun, jangoikuak lagundu deitsuzula" ei zen doministiku egindakoan esaten zen formula.

14. Erdaldunak gerra ostean Mendrakara

- **Erref:** ELO-037/027
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:37:00. **Bukatu:** 00:39:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

<p>Ez daki erdara askorik, baina gaizki esaka jardunez gero ulertzen du. Erdaldun asko etorri zen Mendrakara gerra ostean baina kalean zerbait aurkitu zutenean laster alde egin zuten. Haiekin erdaraz egin behar.</p>

15. Orain bekaturik ez, dena libre

- **Erref:** ELO-037/029
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:42:02. **Bukatu:** 00:43:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera

Laburpena:

<p>Santo Tomas egunean mezarik ere ez zen egoten Mendrakan. Aldapen hiru ermita daude: San Juan, San Jurgi eta Santiago (Santixo). "Nausi" ei da Aldape. Orain ez ei dago bekaturik, orain dena libre. Dena kanbiatzen ei da, jaungoikoa izan ezik.</p>

Transkripzioa

-Bestela mezetara ta zuek Santo Tomasen?
-Bai zera!, kalien. Orduen barriz lehenao mezaik be ez zan egoten Santo Tomas eguna ixenda be. Ez.
-Abareik ez, ala?
-Jentia astik ez eta zerik be ez. Akabo. Astik be ez. Oiñ egoten da mezia. Abadek edo gorabehera, egoten da. Oin andrak be emoten dittue mezak.
-Aldapen zenbat ermitta dare?
-Hiru zer dauz. San Juan, Sarn Jurri (Jurgi) ta Santixo.
-Eta zelan ba hainbeste ermitta auzouna baten?
-Zer pentsetan dozu? Aldape nausi da.
-Zeozer izen biher.
-Jolin!, hoixe. Jolin!, hola.
-Ez dago Elorrixon holakorik.
-Hori ba, aber, Aldape nausi.
-Edo pekatu asko hemen?
-Bueno. Oin ez dao pekatuik. Oin dana libre da. Dana libre.
-Eta lehen ze pekatu egoten zan ba?
-Ez dakit ba nik. Lehenguok jun zien kokoraiñoko (?) baiña oin dana libre da; itten dabena dana parkatuta dao oin. Akabo. Ze eingo dotsazu ba. Gauzak kanbixau eitten dia; jangoikua ez da kanbixetan baiña jentia kanbixetan da. Akabo.

16. Hilekoa

- **Erref:** ELO-037/031
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:45:18. **Bukatu:** 00:46:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Sexua

Laburpena:

<p>Hilekoa heltzen zitzaienean "ahal dana" egiten zuten. Behin basora ira ebakitzero zihoala etorri ei zitzaion, amantala lekuan jarri eta lanean egin zuen jo ta ke egun guztian.</p>

17. Lixiba egiten

- **Erref:** ELO-037/033
- **Iraupena:** 0:02:47. **Hasi:** 00:47:06. **Bukatu:** 00:49:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:

Aldapen ez du lixibarik egin izan, baina Mendrakan bizi zenean bai. Lixiba zela egiten zuten azaltzen du. Ereinotz-orria eta sutako hautsa botatzen zioten; sutako hautsak zuri-zuri egiten du arropa eta ereinotz-orriak usain ona ematen dio. Lejiak erre egiten du arropa. Trapoak jartzen zituzten hilekoa zutenean.

18. "Ez ibili", umerik ez izateko erremedioa

- **Erref:** ELO-037/035
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:52:30. **Bukatu:** 00:53:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Sexua

Laburpena:

<p>Datozen umeak "altzau" egin behar direla dio, eta umerik gura ez duenak "ez ibili". Erremedio ona ei dauka horrek. Orain laguntzak daude baina lehen ez, eta makina bat sufrituko ei zuten gurasoek.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-08-03

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com